

Pentsiodunen kopuruak hazten jarraitzen du

Jdanik ohituta gaude noizbehinka pentsioen gaia ezbaian jartzen. Orain, pentsioen Erreserba Funtsa nahiko oparoa izatetik, 70.000 milioi euro, ezerezean geratzear dago eta hortik kezka azaltzea.

Espainiako Gobernuak epe motzeko kontuak biribiltzen zituen, ez ordea epe ertain eta luzekoak. Pentsiodunen kopuruak hazten jarraitu du eta bien bitartean sarrerak, landunek Gizarte Segurantzari ordaindutako kopuruak ez die jarraitzen gastuei. Hortik etengabe Erreserba Funtzari heldu beharra.

Gaur egunera arte gastuak murriztu dira: jubilatutako bakoitzak eskuratu behar duen kopurua kalkulatzeko urte gehiago erabili, jubilazio adina luzatu 67 urtera arte; orain 65 urte eta lau hilabete dago, eta 69 urtera iritsi nahi omen dute. Honela, bizi itxaropena laburtu egingo da eta pentsio kopurua apaldu.

Hemendik aurrera Gizarte Segurantzaren sarrerek izango dute arreta, orain arte gastuek izan duten bezala. Baina zeri heldu? Helduleku bat Estatuko aurrekontuak lirateke; Gizarte Segurantzaren defizita aurrekontuekin estali, estatu askotan egiten den moduan. Horrek estatuaren defizit publikoa areagotuko luke eta EBk kontuak eskatuko ditu. Beraz, konponbide zaila.

Bigarren konponbidea zerga berri berezi bat sortzea izango litzateke. Horretarako egitate zergagarri ugari egon badaude, baina errazena BEZ berri bat sortzea litzateke, luxuzko ondasun (auto, belaontzi, eta abar) eta zerbitzuen (hegazkin, bidaiak, lau izarreko hotel eta abar) gain. Baita finantza trantsizioen gainekoa edo finantza gordailuen gainekoa ere, nahiz finantzariek gogoko ez izan. Halaber, hor dauzkagu Zerga Bereziak. Zergatik ez zerga horiek handitu Europako mailan ipiniz?



Baleren Bakaikoa Azurmendi

EHU-KO IRAKASLEA

Espainiako Gobernuak epe motzeko kontuak biribiltzen zituen, ez ordea epe ertain eta luzekoak. Pentsiodunen kopuruak hazten jarraitu du eta bien bitartean sarrerak, landunek Gizarte Segurantzari ordaindutako kopuruak ez die jarraitzen gastuei. Hortik etengabe Erreserba Funtzari heldu beharra

Beste diru iturri gehigarri bat Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ) tasa 1-2 puntu igota erdietsitako etekina litzateke. Gainera, PFEZari etxebizitzaren kenkariak arindu liezazkiokete, azken batean beraien

prezioak handitzeko direlako. Horrek guztiak iruzur arriskua handituko luke eta egokia litzateke ikuskariak seriozki hartzea, batik bat, goi-mailako sarreraren jarraipena: exekutibo handiak, eliteko kirolariak, hots, Panama eta antzeko paradisu fiskaletan dirua gordetzen duten pertsona orok. Horrez gain, kapitalaren etekinen gaineko zergak handitzea ere ondo legoke. Horrela, presio fiskala Europa Batasuneko (EB) estandarretara hurbilduko ginatke eta zati bat bederen Gizarte Segurantzaren defizita estaltzeko erabili.

Gizarte Segurantzak ematen dizkie enpresariei zenbait hobari lanpostuak sortzeagatik, kasu askotan iruzurrak direnak. Horregatik, hobari horiek bertan behera uztea ere komenigarria litzateke.

Ez dugu ahaztu behar gure pentsio sistema belaunaldien arteko elkartasunean oinarritzen dela. Alabaina, belaunaldi berekoen artean solidaritatea ere gauzatu beharko litzateke. Izan ere, soldata garaienek Gizarte Segurantzari ekarpen handiagoak egin beharko litzateke. Gaur ordaintzeko oinarri nagusia 3.642 euro/hileko da, berdin langile batek 4.000 euro/hileko esku-ratzen badu edo 50.000, 100.000 edo gehiago. Horregatik, norbanako horien ekarpenek oinarri aurrerakorragoak izan beharko litzateke, baina horrek guztiak borondate politikoa eskatzen du eta ziur asko gobernu honek ez du jo nahi bide horretatik.

Azkenik, noizko Euskal Gizarte Segurantza? Estatuaren arabera bere kudeaketak euskal erakundearen esku egon behar luke, nahiz ez dirudien gure agintariak epe motzeko xede dutenik. Baina Espainiaren deskonexioa burutu nahi badugu, urratsak ematea derrigorrezkoa dugu. Ez pentsio osagarria bideratzeko, baizik geure sistema propioa eratu ahal izateko. ■